

# ZABALKETA 01 KOADERNOA:


## PARTE-HARTZEZKO INGURUMEN ARLOKO GOBERNANTZA BOLIVIAN

Valles Cruceños eskualdea Boliviako lurralde zabala da, naturaren aldetik oso aberatsa eta, nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduera oso garrantzitsua garatzen da bertan. Santa Cruz da gertuen duen hiria, eta bertan bizi diren 2 milioi biztanlerentzako (urtetik urtera gehiago dira) elikagaien ekoizle nagusia da.

Eskualde horretan nekazaritzako eta abeltzaintzako produk-tibitatea areagotzeko premia dela eta, ekoizpen edo produkzioko eredu ez-jasangarri baterantz bideratzen ari dira, epe motzeko errendimendu ekonomikoari lehentasuna ematen diona inguruko natura baliabideen kontserbazioaren eta aprobetxamenduaren gainetik.

## GEOGRAFIA ETA KLIMA

Valles Cruceños eskualdea Andeetako mendikatearen inguruko mendietan kokatuta dago, itsasoaren



mailaren gaineko 500-3.600 metro bitarteko altueran. Azaleran ia 13.000 km<sup>2</sup> ditu (Euskadiren bikoitza ia-ia), eta **83.000**

**biztanle**. Biztanleen zati bat herrigune handienetan eta urbanizatuenetan bizi da, hala nola Vallegranden edo Comarapan, baina gainerakoak **nekazarien komunitateetan** bizi

dira; komunitate bakoitzean 30-50 bat familia biltzen dira, eta Haranetan barrena sakabanatuta bizi dira; haran

askotara iristeko modu bakarra lurrezko bideetatik da. Klima epela dute, eta urtean 800 mm inguru egiten du euria (gutxi gorabehera, Euskadin egiten duenaren erdia), abendutik maiatzera bitarteko hilabeteetan. **Euri sasotik kanpo, urte osoko euriaren % 20 baino ez du egiten.** Gainera, **klima aldaketa** dela eta, eskualdeko euri eredua aldatzen ari da eta gero eta maizago izaten dira lehorte luzeak, izozteak eta kazkabarra; horien guztien ondorioz, uztak galtzen dituzte.

# ETXEBIZITZA, HEZKUNTZA ETA OSASUNA

Herrigune nagusietatik urrun dauden nekazarien komunitateetan, bizi baldintzak oso kaskarrak dira. Etxebizitza gehienetan **badute argindarra**, batik bat, eguzki panel txikien bitartez, baina **uraren eta saneamenduaren kasuan**, baldintza askoz ere txarragoetan bizi dira. Familia askok ez dute txorrotako urik, edo zerbitzua behin eta berriz eteten da euririk egiten ez duen hilabeteetan. Komunitate gehienek ez dute estolderia sarerik, eta etxebizitza gutxi izaten dute komun lehorra atzealdean; normalean aire zabalean libratzen dira. Saneamendurik ez dago, ezta hondakinen kudeaketarik ere, eta zaborra lurperatu, erre edo, besterik gabe, bota egiten dutenez, ingurumen kutsadura foku kezkagarriak sortzen dira. Hainbat udalerrian zaborrak sailkatzen hasi dira, bereiz tratatzeko, baina herritarrengan oso txikia da, oraindik ere, ingurumen kontzientziaren maila.

Ur eskasiak **emakumeengan**, bereziki, eragiten du. Haranetako komunitateetan, emakumeek egiten dituzte, ohiko moduan, etxeko zaintzako eta garbiketako lanak, eta otorduak ere beraiek prestatzen dituzte. Hortaz, ur gutxi baldin badago, **haiek ekarri behar dute ura iturrietatik** (ibaietatik edo iturburuetatik) etxeraino.

Hezkuntza mailari dagokionez, lehen hezkuntzako eskolatzea % 80 inguru da, baina bigarren hezkuntzan nabarmen egiten du behera ehuneko horrek, biztanleria handieneko komunitateetan soilik baitaude bigarren hezkuntzako zentroak. Horretaz gain, **zenbait familiatan semeen hezkuntzari ematen diote lehentasuna, oraindik ere**, eta alabek ikasteari utzi eta etxeko lanetan edo nekazaritzan laguntzen hasi behar izaten dute.

Komunitate handienetan (500 familia edo gehiago) soilik izaten da osasun etxea; gainerakoetan, oinarritzko botika kutxa bat izaten dute eta, osasun arretari dagokionez, gobernua aldizka egiten dituen kanpainak baino ez dituzte izaten. **Haurren desnutrizioa** oso handia da (% 29 inguru), eta elikadura dieta ere pobre samarra da: funtsean, patata, arroza eta artoa.



# JARDUERA EKONOMIKOAK

Nekazaritza eta abeltzaintza familiako produkzio unitate txikietan oinarritzen dira, eta eskualde honetako familientzat diru-sarrerak eragiten dituzten jarduera nagusiak izan dira beti. Altitude desberdinak daudenez, nekazaritzarako eta abeltzaintzarako baldintzak ere desberdinak izaten dira eta, beraz, askotariko laboreak landatzeko aukera izan liteke, baina **topografia oso gorabeheratsua izaki, lurren % 10 baino ez dira egokiak laborantzarako**. Altuerako lurretan patata eta artoa landatzen dituzte gehien, baina frutarbolak ere izaten dira, hala nola zitrikoak, mertxikondoak eta aranondoak; eta haranaren behealdean, ureztatzeko ura ere badutenez, barazkiak landatzen dituzte, hala nola tomatea eta piperrak.



Nekazariak barazkiak garbitzen errekan

Baliabide gutxien dituzten familiek **lehorreko nekazaritza** egiten dute; urtean uztaldi bat izaten dute eta, funtsean, euriak ekartzen duen ura baino ez dutenez izaten, errendimendua oso txikia da. Beste familia batzuek **ur gordailuak** egin ahal izan dituzte lurra zulatuta (gutxi gorabehera, 1.000 metro kubikoko edukierarekin); ur horrekin ureztatzen dituzte laboreak eta, hartara, urtean hainbat uztza izan ditzakete. Baina ura ubide irekiak erabilia bideratzen dutenez eta soroak gainezkatzeko bidez ureztatzen dituztenez, galera handiak izaten dituzte. Oso ustiapen gutxitan lortu dituzte ureztatze sistema eraginkorragoak, tantakakoak eta ihinzadura bidezkoak. Nekazaritzako produkzioa areagotze aldera, familiek lur berriak zabaltzen dituzte mendi hegaletan landatzeko, nahiz eta horretarako basoak **deforestatu** eta sastrakak erre behar izaten dituzten.

Jendea saiatzen da nekazaritzako jardunbide egokiak txertatzen, baina praktikan jartzeko zailtasunak izaten

dituzte, **nekazaritzari buruzko ezagutza tekniko mugatuak dituzte eta**. Familiek labore bakarra landatzeko joera izaten dute, eta ez dute errespetatzen laboreak txandakatzeko egutegi egokirik, ezta lugorri uzteko aldiak ere. Gainera, **ongarri, plagizida eta herbizida gehiegi** erabiltzen dituzte, enpresa agrokimikoen marketin kanpainekin itsututa. Jardunbide horien ondorioz, lurzorua nutrientak galtzen ditu eta kutsatzaile kimikoak egoten dira kontsumorako den uretan, baita laboreetan ere.

**Abeltzaintzako produkzioa** modu tradizionalan egiten da, ezagutza tekniko txikiekin. Azienda libre uzten dute soroetan, bazkatzen. Bazka samurrenako eremuetan metatzen dira animaliak, iturburuetatik gertu; beraz, bazkalekuaren ahalmena gainditzen du animalien kargak eta, horren ondorioz, lurzorua trinkotu egiten da eta bazka gero eta ahulagoa jaiotzen da, animalientzako balio nutritibo txikiarekin.

Horri guztiari esker, lurzorua higatu eta narriatu egiten da. Trinkotutako lurzoruan zailagoa da ura iragaztea; beraz, **iturburuak elikatzen dituzten lurpeko akuiferoen errearga murritzuta egiten da** eta herriarren ur eskasiaren arazoa are gehiago larriagotzen da.



Labore soroak aldapa handiko mendietara ere iristen dira

## ANTOLAMENDU SOZIAL ETA POLITIKOA

Nekazarien komunitate bakoitzak ordezkaritza bat izaten du: **Nekazarien Sindikatua** edo **Oinarrizko Lurralde Erakundea (OLE)**; ordezkaritza horrek familiei egiten die deialdia komunitateko arazoak konpondu behar direnean, guztion artean osatzearren gizartea eta produkzioa garatzeko proposamenak. OLE bakoitzak zuzendaritza bat izendatzen du, eta zuzendaritza hori izango da **bitartekari komunitatearen eta udal gobernuaren artean**, eskaerak helarazteko, eta udal aurrekontuko funtsak eskuratu ahal izateko.

Arlo zehatzagoekin lotutako bestelako erakundeak ere izaten dituzte, hala nola Uraren **Erakunde Administrazioa** edo ura eskuratzeko aukera, erabilera eta banaketa administratzen duen erakundea; familia produktoreen elkarteak, emakumeen elkarteak, hezkuntza kontseiluak eta abar. Oro har, erakunde horietan pertsona konprometitua egoten dira, eta helburuak finkatzen dituzte. Dena dela, haien **lana ez da oso eraginkorra izaten**, administrazioari, plangintzak egiteari eta kudeaketari buruzko jakite-



maila apala delako, eta ez dutelako tresna egokirik ere: estatutuak, araudiak eta plan operatiboak.

Valles Cruceños eskualdeko gizartearen beste ahulezia bat da **emakumeek pairatzen duten marjinazioa**, familian ez ezik, komunitatean eta udalerrian ere.

Emakumeen hezkuntza maila gizonena baino txikiagoa izan ohi da, eta etxeko lanak egitera eta seme-alabak zaintzera mugatzen dira.

Soroetako lanak egiten dituzte, baina familiako nekazaritzako produkzioari buruzko erabakiak gizonak hartzen dituzte. Komunitateko batzarretan, emakumeek entzun baino ez dute egiten, haien iritzia ez diotelako balio handirik ematen eta, bozketetan, oro har, gizonaren botoa da balio duen bakarra, "etxeko buru" den aldetik.

Boliviako udal gobernuak Estatuko funtsak jasotzen dituzte herriarren premiei erantzuteko. Oro har, udal kargudunek ez dute prestakuntza jasotzeko aukerarik izan, funtzio publikoan jarduteko; aurrekontuak planifikatu, kudeatu eta administratzeko; edo herriarren parte-hartzea sustatzeko. Prestakuntzarik ez izate horren ondorioz, zailagoa da gardentasunez eta eraginkortasunez jardutea eta, horren ordean, interes politiko partidistek eta epe motzeko ikuspegiari ematen diote lehentasuna.

Plagizidak babesik gabe  
emateak osasun arazo larriak  
eragiten ditu



# INGURUMEN KONTZIENTZIA

Boliviako gobernuak hezkuntza programak eta legeak sortu ditu garapen jasangarria sustatzeko, eta pertsonen bizi eskubideak eta ingurumen eskubideak errespetatzea garrantzitsua dela onartu du, naturarekin harmonian eta orekan egoteko. Horren adierazgarri da “Ley de la Madre Tierra y el Desarrollo Integral para Vivir Bien” eman izana. Alabaina, gizartea sentsibilizatzeko prozesua oso mantso doa. Ingurumen hezkuntzarik ez dagoenez, eta agintariek ere ingurumen osasungarriaren aldeko konpromiso eskasa dutenez, oso zaila da lurraldearen kudeaketa jasangarrian aurrera egitea eta ingurunea gehiago errespetatuko duten ohiturak, bizimoduak hartzea.

**Zabalketa Elkartea** eta Boliviako bazkide **Instituto de Capacitación del Oriente (ICO)** elkartea elkarlanean ari dira, duela 15 urte baino gehiago, Boliviako Valles Cruceños eskualdeko herritarrekin batera, pertsona, elkarte eta gobernuen gaitasunak hobetu eta lurraldearen

ingurumen arloko gobernantza parte-hartzean oinarritu dadin, garapen sozial, politiko eta ekonomikoa ahalbidetzekarren, ingurumen iraunkortasunetik abiatuta eta, hartara, oraingo eta etorkizuneko biztanleen ongizaterako lagungarri izan dadin.



Valles Cruceños eskualdean, familia motako nekazaritzako produkzioa da nagusi, lursail txikietan

**“Pobreziaren aurkako borrokan ingurumenaren, uraren eta saneamenduaren kudeaketa esperientzien bitartez Gipuzkoako gizartea eraldatzeko”** (GFA 2018 ERAL 012/01) proiektuaren hezkuntza materiala. ICLI GGKEk eta Zabalketa Elkartek koordinatutako proiektua, Gipuzkoako Foru Aldundiak kofinantzatuta **“Pobreziaren Aurkako Ingurumen Iraunkortasunaren Nazioarteko Sarearen”** elkarlanaren esparruan.

**Egileak:** Asociación Zabalketa

**Argazkiak:** Zabalketa e Instituto de Capacitación del Oriente

**Diseinua eta maketazioa:** ad hoc Komunikazioa eta Marketina

**D.L.** SS-691-2019



Zabalketa eta ICLIn webguneetan eskuragarri  
gazteleraz eta euskaraz:

[www.zabalketa.org](http://www.zabalketa.org) [www.icli.info](http://www.icli.info)

